Esaera Zaharren txapelketarako lanketa

Lanketa honek bi zati ditu. Alde batetik, ikasgelako ataza eta, bestetik, euskaltegiko dinamika. Euskaltegiko dinamikarekin hasi aurretik ikasgelan lantzea komeni da.

Ikasgelako ataza

Elkarrizketa irakurri eta proposatutako ariketak egin

> Hemendik aurrerako lanketa guztia txapelketa gisa planteatuko dugu. Ikasleek 2 edo 3ko taldeak egingo dituzte (edo gehiagokoak, azken finean, zurea da erabakia) eta aurkezle txit agurgarriak, irakasleak, puxtarriak banatuko ditu. Amaieran puxtarri gehien dutenek Atso Handia titulua jasoko dute ("atsotitzak", badakizu).

Esaerak osatu
Ikasleei 20 esaerak emango dizkiegu bi zatitan[1] eta hasiera eta amaiera lotu beharko dituzte. Ondo osatzen duten bakoitzeko puxtarri bat lortuko dute.

10 esanahi irakurrita asmatu behar dute zein esaerari dagokion
Irakasleak 10 esaeraren (1, 3, 8, 10, 11, 13, 15, 16, 17, 18) esanahia irakurriko du ozenki. Ikasleek asmatu behar dute zeini dagokion azalpen bakoitza. Erantzuna denek batera emango dute (paper batean idatzita-edo) eta asmatzen duten bakoitzeko puxtarri bat.

10 esaeraren esanahia asmatu
Falta diren beste 10en (2, 4, 5, 6, 7, 9, 12, 14, 19, 20) azalpena ikasleek eman beharko dute. Tartetxu bat izango dute pentsatzeko eta, denek prest dutenean, euren hipotesiak esango dituzte. Irakasleak erabakiko du ondo adierazi duten ala ez. Ikasleek ikusiko dute erabakia inpugnatzea merezi duen (hala bada, guk ez dugu inolako ardurarik hartzen). Ez ahaztu puxtarriak!

Esaerak praktikan jarri
Taldeek eurek nahi duten 2 esaera hautatuko dute eta bi egoera bat pentsatu non horiek erabil daitezkeen (egoera bat esaera bakoitzeko). Txandaka joango gara egoerok irakurtzen eta beste taldeek asmatu beharko dute zein den erantzun zuzena. Asmatzen badute, puxtarria lortuko dute bai egoera prestatu dutenek, bai esaera asmatu dutenek.

Txapelketan parte hartu
Amaitzeko, benetako txapelketa egingo dugu.
Lehenengo eta behin, taldeen zerrenda egingo dugu. Ondoren, lehenengo taldeak dagokion bertsoa entzungo du behin eta, haiek nahi izanez gero, bitan ere bai. Aukera bakarra dute asmatzeko. Erantzun zuzena ematen badute, bi puxtarri lortuko dituzte, baina egokia izan ezean, errebotea egongo da zerrendako hurrengo taldearentzat. Azken horiek asmatzen badute, puxtarri bat lortuko dute, bestela txanda zerrendako hurrengo taldearentzat da. Talde guztien artean ez badu inork asmatzen, puxtarri horiek ez dira banatuko. Orain bigarren taldearen txanda da. Lehen egin bezala ekingo diogu txapelketari.

---

1 Horretarako bi euskarri egongo da, irakasleak aukera dezan egokiena. Alde batetik, esaerak fitxa batean egongo dira bi zutabetan ikasleek lot dezaten. Bestetik, mozteko moduko eredua egongo da. Azken horretan fitxak egongo dira eta talde bakoitzari sorta bana emango zaio.

Euskaltegiko dinamika

Euskaltegian esaeren txokoa jarriko dugu eta arduradun bat izendatu. Txokoak izango ditu aukeran dauden 20 esaerak, bertsoa jartzeko moduko zati bat eta erantzunak sartzeko kutxa (argazkikoa har daiteke adibidetzat). Astean bi aldiz (astelehen eta asteazkenean), bertso bat jarriko du arduradunak eta hor mantenduko du hurrengoa ezarri arte. Ikasleek aukera izango dute bertso horri dagokion esaera zein den esateko. Horretarako kutxan paper bat sartuko dute eta bertan euren izena, bertsoaren zenbakia eta esaera zein den jarriko dute. Bertsoak amaitzen direnean, arduradunak berrikusiko ditu eta ebatzi zein den irabazlea.



Erantzun galderei (erantzunak)

1. Txapelketak berdin jarraitu du hasieratik?

Ez. Hasieran ikasleen artean izan zen eta gero inguruko euskaltegietako zein ikastolako jendea gonbidatu zuten, eta beste formatu batean.

2. Bete hutsuneak

a) • nukeen • dezaket • nuen	b) • hitzorduan • hitzordu • hitzordua

3. Eman azpimarratutako hitzen sinonimo bana

a) **behintzat:** behinik behin, bederen, sikiera, puru (Zub.)

b) **esaera zahar:** atsotitz, errefrau

c) **gogoratu:** oroitu, gomutatu, gogora ekarri

4. Laburbilduz, zein da txapelketaren funtzionamendua?

a) Bazkalosteko saioan erreboteak erantzuteko aukera dute talde guztiek.

b) **Taldeek esaerak ikasi behar dituzte eta tabernetan puntu gehien lortzen dituztenek finala jokatzeko aukera izango dute. (Bai, bazkalosteko finalaurrekoan sailkatzen badira)**

c) Bertsolariek, bai Algortako Bertsolari Eskolakoek, bai Onintzak eta Ametsek, bertsoak inprobisatzen dituzte parte hartzaileek asma ditzaten.

Esaerak osatu (erantzunak)

1	Abere gaiztoa	a	burua baino
2	Aitzakia bila dabilenak	b	badittuk begik
3	Asko balio du indarrak,	c	berba gitxi
4	Bakarrik ezin danean,	d	da gorrotoa
5	Berba politxak,	e	danori gustatzen
6	Elea zilar dela,	f	ta etxean elorri
7	Eroriena izanik ere,	g	ixiltzea urre
8	Ezertarako balio ez duenik	h	beti aurkitzen du
9	Hastea erraz,	i	laguntza eskatzea ez da lotsa
10	Ibiltari gauean,	j	adausi handirik ez
11	Ilea zuritzea hobea da,	k	inok eztauke pekataritzat
12	Kanpoan lili,	l	gehiago buru azkarrak
13	Mila urte igarota,	m	Ontsa eginaren desegiten
14	Norberan buru	n	irautea zail
15	Pobrik,	ñ	lagun gitxi
16	Sasik ere	o	ez dago
17	Sugea hilagatik,	p	ura bere bidean
18	Tontoak zer daki egiten?	q	logale goizean
19	Ulerle onari,	r	sugakumeak bizi
20	Zakur zaharrak,	s	altxa diteke

1	**2**	**3**	**4**	**5**	**6**	**7**	**8**	**9**	**10**
d	h	l	i	e	g	s	o	n	q
11	**12**	**13**	**14**	**15**	**16**	**17**	**18**	**19**	**20**
a	f	p	k	ñ	b	r	m	c	j

Esaeren zerrenda

1. Abere gaiztoa da gorrotoa
2. Aitzakia bila dabilenak beti aurkitzen du
3. Asko balio du indarrak, gehiago buru azkarrak
4. Bakarrik ezin danean, laguntza eskatzea ez da lotsa
5. Berba politxak, danori gustatzen
6. Elea zilar dela, ixiltzea urre
7. Eroriena izanik ere, altxa diteke
8. Ezertarako balio ez duenik ez dago
9. Hastea erraz, irautea zail
10. Ibiltari gauean, logale goizean
11. Ilea zuritzea hobea da, burua baino
12. Kanpoan lili, ta etxean elorri
13. Mila urte igarota, ura bere bidean
14. Norberan buru inok eztauke pekataritzat
15. Pobrik, lagun gitxi
16. Sasik ere badittuk begik
17. Sugea hilagatik, sugakumeak bizi
18. Tontoak zer daki egiten? Ontsa eginaren desegiten
19. Ulerle onari, berba gitxi
20. Zakur zaharrak, adausi handirik ez

ESAEREN AZALPENAK

1. ABERE GAIZTOA DA GORROTOA
Abere: animalia, batez ere gizakien etxeetan bizi direnak
Gorrotoa sentimendu bortitza da; barru-barrutik ateratzen zaigu, eta oso-oso zaila da maneiatzen. Horregatik esaten du esaera honek gorrotoa animalia bat bezalakoa dela, maiz ezin delako kontrolatu. Kontrolagaitza ez ezik, gaiztoa ere izaten da: gorrotoak bultzatzen gaitu, ia pentsatu gabe, ekintza ankerrak egitera; hori dela eta, egoera normal batean sekula egingo ez genituzkeen gauzak egin ditzakegu gorrotoaren mende gaudenean.

2. AITZAKIA BILA DABILENAK BETI AURKITZEN DU
Aitzakia: arrazoi alegiazko edo gezurrezkoa, egiazko zergatia estaltzeko ematen dena (ga: excusa, pretexto; fr: prétexte, excuse)
Giza adimenak ez du mugarik, eta, edozein pertsonak, baldin eta zerbait egin nahi ez badu, beti topatuko ditu beharrezko dituen aitzakia eta estakuru guztiak. Zuk zenbat aitzakia asmatu duzu zeure bizitzan? Nik, egia esango dut, baten bat..

3. ASKO BALIO DU INDARRAK, GEHIAGO BURU AZKARRAK
Azkar: argi, adimentsu
Indarra beharrezkoa da; are beharrezkoagoa burua (hots, adimena). Erdaraz: “Más vale maña (trebezia, ez emakume aragoitarra) que fuerza”.

4. BAKARRIK EZIN DANEAN, LAGUNTZA ESKATZEA EZ DA LOTSA
Konturatzen bagara ez dugula indar nahikorik lan, zeregin edo eginbehar handi bat burutzeko, orduan beharrezkoa (bezain ezinbestekoa) izanen da laguntza eskatzea. Ez dugu zertan lotsatu horrelakoetan. Kontuz ibili urguiluarekin, arriskutsua bezain kaltegarria da-eta!

5. BERBA POLITXAK, DANORI GUSTATZEN
Berba: hitz, ele / Politxak: politak / Danori: denoi
Hitz ederrek onurak baino ez dituzte ekartzen, eta denoi gustatzen zaizkigu. Ez al da hala, irakurle jator, euskaltzale, adimentsu, azkar, panpox, atsegin hori?

6. ELEA ZILAR DELA, IXILTZEA URRE
Ele: hitz, berba / Zilar (plata; argent) / Urre (oro; or)
Hitz egiteak asko balio du, ziur (bueno, hizlariaren arabera); alta, sarri, gehiago balio du isiltzeak, dela ez delako komeni hitz egitea, dela egoera zail bat baretzeko... Arabiarrek honen antzeko zerbait esaten omen dute: Egizu hitz, soilik baldin eta esango duzuna ederragoa bada isiltasuna bera baino. Ulertu duzue? Bai? Orduan, ixo denok!

7. ERORIENA IZANIK ERE, ALTXA DITEKE
Diteke: daiteke
Arazo larriren batean egonda ere, sakoneraino jausita ere, edonor altxa daiteke sakontasunetik sakonenetik. Beti egoten da bigarren aukeraren bat, eta sekula ez da itxaropena galdu behar. Gora bizitza! (hain da polita kontzeptua, ezen arrosaz idatzi baitugu azalpen hau; zuri-beltzean ikusten baduzu, izugarri sentitzen dugu).

8. EZERTARAKO BALIO EZ DUENIK EZ DAGO
Den-denak balio du zerbaitetarako: liburu txar batetik, hitz polit bat ikas dezakegu; lagun txar batengandik, aholku ona jaso dezakegu; esperientzia negargarri batetik, ikasgai interesgarria lor

dezakegu; lan nazkagarri batetik, soldata ona eskura dezakegu; bertso-saio aspergarri batetik, ideia onik ikas dezakegu; erdipurdiko txapelketa batean, egun zoragarria igaro dezakegu; azalpen eskas bati esker, barre apurra egin dezakegu...

9. HASTEA ERRAZ, IRAUTEA ZAIL

Aise, erraza da zerbaitetan hastea (negozio, lan, jarduera, kirol, zaletasun, (bikote)-harreman, liburu autobiografikoa...); zailagoa, ordea, horretan jarraitzea, irautea. Hasteko, gogoa baino ez da behar; segitzeko, aldiz, iraunkortasuna edo pertseberantzia. Eta denok dakigu gogoa oso laster desagertu ohi dela, askotan lehendabiziko zailtasuna agertzearekin batera. Ni, adibidez, dagoeneko nekatuta nago azalpenok idazten, eta oraindik 71 falta zaizkit! Ai, ene!

10. IBILTARI GAUEAN, LOGALE GOIZEAN

Ekintza guztiek dakarte ondorioren bat: gauez hor zehar ibiltzen bazara (lo egin beharrean), logale (logura) egongo zara goizean. Bai, ezta? Izan ere, txanpon guztiek dituzte aurkia eta ifrentzua; arrosek, lorea eta arantzak...

11. ILEA ZURITZEA HOBEA DA, BURUA BAINO

Ilea zuritzen bada, ez da ezer garrantzizkorik gertatzen; burua zurituz gero, ordea... Baina, zer ote da “burua zuritzea”? Izan daiteke hezurra ikustea haragia desagertuta (hil ostean, noski); izan daiteke burmuina “zuri” geratzea, oroitzapen guztiak galduta... Edozein kasutan, hobe da ilea zuritzea, ezen ez burua. Ados?

12. KANPOAN LILI, TA ETXEAN ELORRI

Lili: lore / Ta: eta

Zenbait pertsonak arras jokaera ezberdina dute tokiaren arabera: kalean, jendearekin, atseginak dira (lore ederra dirudite); etxe barruan, berriz, senideekin-eta, arantzaz beterik agertzen dira (elorria ematen dute). Antzekoa da, noski, “Kalean uso, etxean otso”.

13. MILA URTE IGAROTA, URA BERE BIDEAN

Igarota: pasatuta

Urak bere bideak ditu eginda aspaldi-aspalditik, eta gertatzen dena gertatzen dela, horiek ditu bere bideak. Alegia, gauza batzuk ez dira sekula aldatzen. Esaera hori (ustezko) Erdi Aroko abesti batean agertzen da, “Beotibarko kantua” izenekoan hain zuzen:

"Mila urte igarota / ura bere bidean.
Gipuzkoarrok sartu dira / Gazteluko etxean,
nafarrokin batu dira / Beotibarren pelean...".

Gudu (bataila) hura 1321. urtean agitu zen; baina, antza denez, ordurako ohikoa zen gipuzkoarrak (Gaztelaren alde) eta nafarrak (beren independentziaren alde) borrokan aritzea elkarren kontra. Beraz, lehen esaldi poetikoak esan nahi du egon badaudela denboraren iragateak ere ezin alda ditzakeen gauzak: (antzinako) gipuzkoarren eta nafarren arteko antzinako lehia, esaterako.

14. NORBERAN BURU INOK EZTAUKE PEKATARITZAT

Norberan: norberaren / Inok: inork / Eztauke: ez dauka / Pekataritzat: bekataritzat, bekatari gisa

Inork ez du uste bekataria denik; aitzitik, denok uste dugu on-onak garela, balio handikoak. Adibide bat: Estatu Batuetako irakasleei galdetu zieten ea, haien ustez, irakasle onenen artean ote zeuden (% 10 onenen artean, hain zuzen). Bada, % 70ek erantzun zuen baietz*. Non dugu, orduan, autokritika?

* Badaezpada ere: ni % 10 horren barruan nago, nola ez!

15. POBRIK, LAGUN GITXI
Pobrik: pobreak / Gitxi: gutxi
Esaera honek merezi du azalpenik? Tira, zergatik ez? Sinesmen herrikoi zaharren arabera, baliabide ekonomiko urriak dituzten pertsonek (alegia, behartsu, lander, txiro edo pobreek) ez dute izaten harreman-sare sozial indartsurik; alegia, adiskide falta izaten dute. Zergatik? Bada, beti egoten delako asmo interesaturen bat erlazioetan, bati bilatzen dugulako zerbait besteengan (dela aholkua, dela laguntza, dela zerbait ikastea...); eta, normalean, jende pobreak ezer gutxi izaten duenez eskaintzeko, begi-bistakoa da zergatik ez zaien ia inor gerturatzen. Horrexegatik ez dut nik lagun askorik; bestela, den-dena daukat ona: izaera, umorea, ohiturak, gustuak...

16. SASIK ERE BADITTU BEGIK
Sasik: sasiak / Badittu: baditu / begik: begiak
Non-nahi, gutxien uste den tokian, sasi artean ere, izan liteke ikusle bat, zelatari bat. Beraz, kontuz zer egiten duzun edozein tokitan, agian ikusiko zaituzte-eta! (bai, orain ere bai)

17. SUGEA HILAGATIK, SUGAKUMEAK BIZI
Hilagatik: hil arren, hilda ere / Sugakume: sugearen ume, sugekume
Arazo batzuk erraz desagerraraz ditzakegu, baina baliteke horien ondorioak zailagoak izatea konpontzen. Adibidez, Ukrainako gerra atoan, oraintxe bertan, amaituko balitz ere, zer egin Errusia-Ukraina arteko ezinikusiarekin, eta hango hiri eta herrien berriztatzearekin, eta Errusiako ekonomiarekin, eta Donbas zein Donetsk eskualdeetako jendearekin eta haien eskubideekin, eta mendebalderantz jo duten milioika errefuxiatuekin, eta NATOren zabaltze-asmoekin, eta Ukrainiako talde faxistekin, eta Sobiet batasunaren itzala berpizteko planarekin, eta komunikabide batzuen kontrako zentsurarekin, eta kazetari espetxeratuekin, eta abarrekin?

18. TONTOAK ZER DAKI EGITEN? ONTSA EGINAREN DESEGITEN
Ontsa: ondo, ongi
Tontoek ez dakite ezer egiten. Bueno, ez dakite ezer ONDO egiten. Beraz, zertan dira onak tontoak? Bada, jada ondo eginda dagoena desegiten;beste ezer ez. Ulertu duzu azalpen hau, ala esaera honen protagonistetako bat al zara*?
* Testu idatzietan ez omen da ironia ondo nabaritzen...

19. ULERLE ONARI, BERBA GITXI
Ulerle: ulertzen duena / Berba: ele, hitz / Gitxi: gutxi
Erraz ulertzen duenari, gauzak labur azaldu. Aski da horrela. Bai, ezta?

20. ZAKUR ZAHARRAK, ADAUSI HANDIRIK EZ
Adausi: zaunka
Adinak mila arazo ekartzen ditu; adibidez, adinekoek badakite jendeak kasu gutxi egiten diela. Eta, kasu horretan, zertarako egin oihu handiak? Gainera, gorputza ahuldu egiten da zahartzean, eta gero eta akigarriagoa da edozer egitea.
Dena den, adinak badu abantailaren bat ere: teorian, urteak bete ahala heldutasunera iristen gara (denok ez, baina tira), eta gauza asko ikasten ditugu (guztiok ez, bistan da). Besteak beste, alferreko esfortzuak ekiditen ikasten dugu, eta zera pentsatzera iristen gara: zertarako nekatu ezertan, ahaleginak ezertarako balio ez badu?

1. Abere gaiztoa	da gorrotoa
2. Aitzakia bila dabilenak	beti aurkitzen du
3. Asko balio du indarrak,	gehiago buru azkarrak
4. Bakarrik ezin danean,	laguntza eskatzea ez da lotsa
5. Berba politxak,	danori gustatzen
6. Elea zilar dela,	ixiltzea urre
7. Eroriena izanik ere,	altxa diteke
8. Ezertarako balio ez duenik	ez dago

9. Hastea erraz,	irautea zail
10. Ibiltari gauean,	logale goizean
11. Ilea zuritzea hobea da,	burua baino
12. Kanpoan lili,	ta etxean elorri
13. Mila urte igarota,	ura bere bidean
14. Norberan buru	inok eztauke pekataritzat
15. Pobrik,	lagun gitxi
16. Sasik ere	badittuk begik

17. Sugea hilagatik,	sugakumeak bizi
18. Tontoak zer daki egiten?	Ontsa eginaren desegiten
19. Ulerle onari,	berba gitxi
20. Zakur zaharrak,	adausi handirik ez

Hormarako bertsoak

Ehun esaera ikastekotan

jarri buru eta pultsu.

Onar ezazu: paperak ere

ia irentsi dituzu.

Kontraesana badakar berez

esaera honek, aizu!

txapelketa hau irabazteko

hitz egin beharko duzu.

Pandemi latzak ezarri zigun

etxeratze berezia,

hala ere buelta bat egiteko

behin nuen gogo bizia.

Nik ezkutuan alde egiten,

neukan ondo ikasia,

baina ekimena suertatu zen

aldrebesa ta nahasia:

ohartu orduko balkoietatik

nuen mila polizia.

Gure gorabeherak

Uholde (e)ta sute.

Depresioak ez du

hainbeste bertute.

Zer emango genuke

Laguntzaren truke?

Esaera ikasi

beharko genuke!

Bertsolaria eta gaztea

gauez nenbilen parrandan.

Ondo pentsatuz, gaztetan zenbat

goiz galdu izan ditudan...

Horrek guztiak ondorioak

izan zituen segidan.

Le(he)n niri amak esaera hau

sarritan esaten zidan.

Erantzunak

1. Elea zilar dela, ixiltzea urre
2. Sasik ere badittu begik
3. Eroriena izanik ere altxa diteke
4. Ibiltari gauean, logale goizean